

B

BARREN

TOKIKOM

Bizitza bat, hamaika lan



Garbiñe Beristain eta Garbiñe Uriguen, Trinitateetako danborradarako egindako argazkian



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea
Elgoibar
☎ **943 743 140**
rosapf@telefonica.net



**Etxebizitza erosi nahiko nuke eta ezertan hasi aurretik jakin nahiko nuke komeni den saltzailearekin idatzi pribatu bat izenpe-
tzea, ziurtatzeko ahoz esandako baldintzak beteko direla.**

Etxebizitza bat saldu edo erosten den kasuetan, ohikoa da saltzaileak eta erosleak eskritura pribatu bat idatzi eta sinatzea eskritura publikoa egin aurretik (berez ez da derrigorrezkoa). Eta biak, bai etxe saltzailea zein eroslea, derrigortuta daude kontratu pribatu horretan jasotakoa oso-osoan betetzera, beti ere akordio horiek legeak ezartzen duenaren kontra ez badoaz. Beraz, ez bata ez besteak ezingo dute dagozkien betebeharrak bete gabe utzi, idatzi horretan esaten dena ezagutzen ez dutela arrazoituta.

Idatzi hori balekoa bada ere, ez da nahikoa salerosketa hori jabetza-erregistroan jasotzeko edo eta hipoteka mailegua eskatzeko. Gauzak legezko egiteko eskritura publikoa egin behar da, notario aurrean

GOMENDIOA: Kontratu pribatu bat sinatu aurretik garbi izan han esandako guztiak behar bezala ulertzen direla. Zalantzak izanez gero, argitu, edozer sinatu aurretik.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



matricúlate en
aek

**En 30 años 50.000 personas
ya han aprendido euskara en nuestros 100 euskaltegis**

Prezio erdia + bekak Udalari esker

Izena eman hilaren 26a arte



TATIANA
*"3. MAILA = EGA
lanerako behar
dudalako"*



MATTEO
*"Studio Euskera
perché le lingue ti
aprono le porte
della bertako kultura"*



LUIS
*"Poc poc amb
esforç i constancia ...
lortzen dugu.
Animatu zaitetz"*



NEREA
*"Quiero llegar
a poder comunicarme
con mis hijos
en euskera"*

AEK EUSKALTEGIA - Plaza txikia, 3 - Tel.: 607 601 423 - elgoibar@aek.org



Maitane Mendikute

Jani, zer moduz joan dira ba opor-rrak? Azken osti-kadetetan ibiliko zara zeu ere... Eta gure txorrotxia idazteko gaia aukeratzten ari nintzela, tipikoa izango da sasoi honetan, baina ezin izan dut opor ondorengo sindromea burutik kendu.

Izan ere, berriro ere eguneroko bizimodura bueltatu garen honetan, inguruan hasi zaizkit jada hurrengo urteko oporraldiak planifikatzen, hegaldien prezioak begiratzen... eta ia-ia baita hurrengo oporraldirako geratzen diren egunak kontatzen ere (100 bat inguru edo, *portzierto!*).

Eta bai, neu ere pozik ibiltzen naiz oporretan, eta alaiago eta deskantsatuago, baina iruditzen zait astelehenetan ostirala iristeko zain eta opor ostean hurrengo oporraldia noiz etorriko zain gaudela, mahai gaineko kalendarioan lan egunak txatatu eta opor egunak kolore fluoresentez markatzen dihardugun bitartean.


“Ba al duzu formularik eguneroko bizimoduak gehiago asebeste gaitzan?”

Eta horrela, konturatu gabe, gero eta azkarrago pasatzen zaizkigu urteak, eta pasatzen zaigu bizitza. Momentuz gehiegi gozatu gabe, edo, behintzat, sentsazio hori daukat.

Daukagun egunerokoa hain gutxi atsegin al dugu ba? Hala bada, agian, pentsatu beharko genuke bizimodu hobea/gustukoago bat ere izan genezakeela. Eta agian Indonesiako irlatxo batean dago gure benetako tokia, edota aitonen baserrian letxugak landatzen, edota belauntzi batean...

Edo ez. Aldaketa al da benetan gustatzen zaiguna? Zerk kentzen dio edo ematen dio xarma errutinari?

Dena den, uste dut zuku gehiago atera beharko geniokeela egunerokari. Zuri dexente aldatu zaizu bizimodua aspaldian, eta baliteke orain ez sentitzea hain identifikatuta nirekin. Zer diozu? Ba al duzu formularik eguneroko bizimoduak gehiago asebeste gaitzan?



Janire Elordi

Kontatu dizkidazun kalkuluak nik neuk sekula egin ez ditudan arren, ez da seinale txarra lanean hurrengo urteko oporraldiak antolatzen dabilzan lankideak edukitzea. Lanpostuarekiko segurtasuna behintzat adierazten du!

Nik inoiz ez diot opor osteko sindromeari garrantzirik eman eta errutinak ez nau hasi orduko itozten. Baina sindromei buruz hitz egiten hasita, aurtengo irailean, beharbada, amatasun sindromea-edo izango dut, opor egunen falta sentitu beharrean alabaren falta sentituko ote dudan pentsatzen hasita nagoelako.

“Bada...geratuko gara beste behin ostiraleroko kafetxoa hartzeko?”

Eta orain, halabeharrez errutina nire lagun mina denean, eguneroko gauza xumeekin elikatzen dut nire izana. Hala, kirola egitea zerrendako azken lerroan geratu bazait ere, eta baratzean tomateak landatzeko tarterik hartu ez eta, gainera, lagunekin egoteko denborak hobeto neurtu behar izaten ditudan arren, gozabide ditut gosaldu aurretik jasotako iribarre goxoak, txikia neure esnez haztea, bi-begi beltz distiratsuri behin eta berriz begiratzea, lotan dagoen aingerutxoa mantapean babestea, negarrak asaldatzen duena besoetan jasotzea, zuhaitzen itzalean txori kantuak entzu tea, haur kantak abestu eta ikastea...

Agian egunerokoan falta zaiguna bilatzeko baliatzen dugu oporraldia eta aisian gogobetetasuna aurkitzeko ilusioz murgiltzen gara itsaso epeletan, baina ausartuko naiz esatera benetan aseta sentiarazten gaituztenak erronka bilakatzen diren proiektuak izaten direla. Beraz, horrenbeste aldaketarekin arrotz sentitu ez nadin, geratuko gara beste behin ostiraleroko kafetxoa hartzeko?



ESKERTZA

MERCHE HERRERO FERNANDEZ

2014ko abuztuaren 19an hil zen, 79 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA**
Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO**
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea
Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi,
Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara
Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez,
Majalen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Inigo
Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga,
Danele Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti
Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute,
Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E.
TIRADA 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-
1.038/92 **ISSN** 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



elgoibar
biZi-biZiKa!



MENDAKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Lagundu Ziburuko ikastola biziarazten

Irailaren 9an amaitu zen Paueko Auzitegiak Ziburuko Kaskarotenea ikastolari okupatzen duen tokia uzteko jarritako zazpi eguneko epea. Egunak igarota, Marinela gunean jarraitzen duten egun bakoitzeko 100 euroko isuna ordaindu beharko du ikastolak. Argindarra, ura eta hesiak kenduko dizkiela egin die mehatxu Ziburuko auzapez Guy Poulouk. Epaia jakin zenetik Seaska modu askotan saiatu da egoerari irtenbidea bilatzen, baina akordiorik ezean, Marinelan jarraituko dutela diote. Kaskarotenea ikastola duela bi urte sortu zen. Zortzi ikasle zituen orduan eta 13 ditu egun.

Egoera honen aurrean eta etor daitezkeen isunei aurre egiteko, Seaskak elkartasun kanpaina jarri du martxan. Kontu korrante zenbaki hauek jarri dituzte norberak borondatez nahi duen kopurua bertan sartzeko: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 88 0590731027 edo Kutxa-bank: 2101 0045 97 0003310786

Elgoibartar lagun hori, zuregana jotzen dut guztion artean Ziburuko ikastola biziarazten lagundu dezagun! Animatu eta eman eza-zu laguntzatxo bat! Mila esker!

Mikel Egiguren ☺

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



VI. URTEURRENA

NORA REY NOGALES

*Hainbeste kostatzen zaigu zu gabe bizitzea,
baina aldi berean hain sentitzen zaitugu gertu...
Maite zaitugu.*

1998/10/18 - 2008/08/11



III. URTEURRENA

LEIRE UGARTEBURU GABILONDO

*Alai eta jator
iraungo duzu
maite zaitugunon
oroitzapenean*

Etxekoak

2011 - 08 - 18



II. URTEURRENA

JOSE LOIOLA IRIONDO

*Beti izango zaitugu
gure bihotzean*



2012ko irailaren 13an hil zen, 79 urte zituela. II.urteurreneko meza zapatuan, irailaren 13an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.

36ko gerran Aiastian izandako borroken inguruko liburua aurkeztuko dute astelehenean, Elgoibarko Kultur Etxean

Eguenean, 'Goazen gudari danok...' dokumentala estreinatuko dute, Herriko Antzokian

Memoria historikoa berreskuratzeko Elgoibarko Udalak antolatutako programaren barruan, *Goazen gudari danok...askatasun-bidean* izenburuko liburua eta dokumentala aurkeztuko dituzte datorren astean Elgoibarren. Astelehenean, hilaren 15ean, aurkeztuko dute liburua, Kultur Etxean (19:00). Patxi Juaristi, Josu Txueka eta Francisco Etxeberria EHUko irakasleak eta Sabino Arana Fundazioaren kolaboratzaile diren Aitor Estebanek eta Iñaki Goioanak idatzi dute. Dokumentala, berriz, egunean aurkeztuko dute, hilaren 18an, Herriko Antzokian (19:00). Azpeiti eta Elgoibarko lurretan grabatu dituzte dokumentaleko irudiak.

Irailaren 21ean, 36ko gerrako gudariei omenaldia egingo diete Zirrardamendin, hildako gudarien hobien ondoan. 10:00etan hasiko dute ekitaldia, lore eskaintzarekin, eta 11:30ean Ertzaintzaren musika bandak joko du, Aiastiako frontoian. 12:00etan, Gernikako Arbolaren kimu bat landatuko dute. Ekitaldian, Iñigo Urkullu Jaurilaritzako lehen-dakariak hartuko du parte, besteak beste.

Erakusketa, hilaren 21a arte

Programaren ardatza, nolana ere, erakusketa da. Abuztuaren



22an zabaldu zuten eta irailaren 21a arte egongo da ikusteko aukera, Kultur Etxeko erakusketa gelan. Aste barruan 18:00etatik 21:00etara, eta asteburuetan 12:00etatik 14:00etara goizez eta 18:00etatik 21:00etara arratsaldez.

Agur Olaso industrigunea eta Sigma auzoa batzen zituen pasabideari



Joan zen barixakuan kendu zuten Olaso industrigunea eta Sigma auzoa batzen zituen pasabidea. Kendutakoaren orde, beste pasabide bat jarriko dute, eta Olasoko aldean igogailu bat ere bai, irisgarritasuna hobetzeko. Pasabide berriak hamazazpi bat metro izango ditu, eta Otegi Gaztañaga enpresak egingo ditu obrak. 178.810 euroko aurrekontua izango dute obra hauek, Hirigintza Salletik jakinarazi dutenez.

Mausitxak bigarren saria eskuratu du Ordiziako Idiazabalgo artzain gaztaren txapelketan

Mausitxako gazta aukeratu zuten bigarren gaztarik onena eguaztenean Ordiziako Idiazabalgo artzain gaztaren txapelketan. Lehenengo saria Segurara joan zen. Karmele Muruak irabazi zuen txapelketa. Guztira 52 gazta aurkeztu dituzte aurten txapelketara, eta bigarren saria eskuratu du Mausitxak. Hirugarren, Joseba Insausti ordiziarra izan zen, eta laugarren, Azpeitiko Berastegi Elkarte. Enkantean, Idiazabalgo Ampo enpresak erosi zuen Muruaren gazta erdia, 13.050 euro ordainduta.

Argazkia **Tomate mutanteak**



Angel Sanz elgoibartarra etorri zaigu BARRENERA, baratzean tomate ale oso bereziak jaso dituela esanez. Mutazio antzerako baten ondorioz, tomate bitxiak jaso ditu aurtengo udan. Guadalajarara joaten da Sanz oporretan, eta han aritzen da lurra lantzen. Fruta arbolekin hasi zen orain dela 28 bat urte, eta azken lau urteetan tomate landarak ere hazi ditu, baina aurten jaso duen tomate uzta halakorik sekula ez duela ikusi esan du. Tomate ale handiak izateaz gainera –kilo eta 800 gramokoak batzuk– haien itxurarekin harrিতa dago Angel. Tomatearen heltze prozesuaren amaieran gertatu den mutazio moduko bat dela esan dio lagun batek. Angelek badaezpada ez ditu tomate horiek jan.

Irudia **Kurtso hasiera, Oin Alairekin**



Trikiti doinuekin hasi zuten ikasturtea Elgoibarko umeek astelehenean. Oin Alai egitasmoaren barruan, trikitilariak alaitu zieten Kalegoen plazatik King-Kong-era arteko bidea ume zein gurasoei, eta handik Herri Eskolarako eta Ikastolarako bidea hartu zuten. 2010/2011 ikasturtean jarri zuen abian Elgoibarko Udalak Oin Alai, umeak eskolara oinez joatea sustatzeko ekimena. Ordutik hona jaitsi egin da Oin Alaiaren parte hartzen duten umeen eta boluntarioen kopurua, baina aurten iazko kopuruetan ibiliko direla aurreratu dute arduradunek. Hala, momentuz, 51 ume [jaz 53 izan ziren] eta 20 boluntariok eman dute izena. Nabarmenezkoa da Basarte-San Roke adarra berriro martxan jarri dutela, eta Erretxindi auzoko hainbat ume ere bat egin dutela egitasmoarekin. Era berean, ikastetxera oinez joateak dituen onurak azpimarratu dituzte egitasmoaren arduradunek. Bate-tik, ariketa fisikoak umeengan dituen onurak asko dira: Ikastola nahiz herri eskolako ibil-bide nagusiek 950 metro luzera dute; eta, bestetik, umeen autonomia lantzen da, herri-tik, segurtasunez, bereak bakarrik ibiltzen ikasten dute-eta. Umeen eta boluntarioen parte hartzea saritzeko opariak zozketatuko dituzte.

53 urteko gizonezkoa hil zen zapatuan, autoak harrapatuta

Auto gidari batek 53 urteko gizonezko elgoibartarra harrapatu zuen zapatuan Aiastia auzoko baserri-bide batean, eta bertan hil zen. 21:00ak inguruan gertatu zen istripua Aiastia parean, GI 2636 errepidean. Markina-Xemeingo noranzkoan zihoan Nissan Note autoa batek harrapatu zuen errepide ondoko petril batean eserita zegoen gizonezkoa. Autoak azpian hartu zuen, eta Larrialdietarako zerbitzuak eta suhiltzaileak bertaratu arren, ezin izan zuten ezer egin haren alde. Ertzaintzak ikerketa hasi du, gertatutakoa argitzeko.

Hasi dute ikasturtea Gaztelekuan eta Ludotekan

Aste honetan bertan hasi dute ikasturtea bai Gaztelekuan eta baita Ludotekan ere. 1997. eta 2002. urteen artean jaiotako gazteek erabili ahal izango dute Gaztelekua, eguaztenetik domekara. Arratsaldez egongo da zabalik, 17:00etatik 20:00etara. Ludoteka, aldiz, astelehene-tik barixakura zabalduko dute, 16:30etik 19:30era. Ikasturteko kuota 45 eurokoa da. Familia ugari-entzat eta bigarren seme-alaba dutenentzat %30eko deskontua dago, eta Ongizate Saileko programatako erabiltzaileek %70eko deskontua izango dute. Informazio gehiagorako 943 748 883 telefonora deitu daiteke.

Sorosle eta sorospen ikastaroa antolatu du DYAK

Gipuzkoako DYAK sorospe eta sorosle ikastaroa eskainiko du Eibarren, irailaren 22tik urriaren 10era. Egunerokotasunean sortu daitezkeen arrisku egoerei nola erantzun irakatsiko dute, besteak beste, bihotz eta birika susperketak nola egin, zauriak, hausturak, erre-durak nola artatu... Ikastaro teoriko eta praktikoa izango da. Matrikulak 110 euro balio ditu. Informazio gehiagorako 943 464 622 telefonora deitu daiteke.

ATZEGUARDIAN



'Bizitza bat, hamaika lan' erakusketako irudia. Hilaren 20ra arte dago ikusgai.

Emakumeak ere lagundu du Elgoibarko industria handi egiten, historia orrietan gizonak itzalean laga badu ere. Egiteko ezberdinak izan dituzte historian zehar emakumeek, eta hain zuzen ere, lan hori, emakumeek industriari egindako ekarpen hori, bistartzeko eta balioesteko prestatu du Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak abuztuaren 22az geroztik Kultur Etxeko sotoan ikusgai dagoen 'Bizitza bat, hamaika lan' erakusketa [hilaren 20an kenduko dute]. Ondartes S.L. enpresak egin du dokumentazio lana, eta 1876az geroztiko historiaren kontakizun laburra osatu du. Erakusketan, baina, Estarta y Ecenarro enpresak tarte zabala hartzen du, eta horrexegatik, enpresa hartan lanean jardun zen emakume talde baten esanak ekarri ditugu orrialde hauetara.

Ainara Argoitia

Garbiñe Uriguen (1933), Gloria Canales (1951), Maria Mercedes Zubiaurre Ansola (1941), Maite Vitores (1954) Nieves Prado (1953), Juana Gallarza (1927), Rosario Beloki (1930) eta Lurdes Barinagarrementeria (1954) dira gure protagonistak. Urteak egin dituzte industrian lanean, tailerlean zein bulegoko lanetan, ondo ezagutzen dute enpresa mundua, eta begi onez ikusi dute emakumeen lana bistartzeko Udalak egindako ahalegina, baina euren uko egiten diote nabarmendu nahi orori. Ez dute protagonismorik nahi. Ez dute argazkirik nahi eta kostata

onartu dute reportajerako euren izenak ematea ere. Lan ordainduan aritu diren eta ari diren emakumeak asko direla nabarmendu dute, eta haietako askoren aldean euren "baldintza oso onetan" aritu izan zirela aitortu dute. Hein handi batean, zorteko ere sentitzen dira Estarta y Ecenarroko parte izategatiak. "Kostako da beste halako enpresa bat topatzea", esan du Nievesek.

Bulegoko lanetan aritu ziren Garbiñe eta Rosario ez beste guztiak, eta ardura handiko karguak bete zituzten haietako askok, baina hala ere, gizonen izenak nabarmendu dira beti euren gainetik. "Emakumea izan zen

enpresa hartako arima, baina enpresaren aurpegi agerikoak gizonen izenak izan ziren beti", adierazi du Nievesek. "Atzeguardian egon ginen gu", bota du Rosariok, eta ildo beretik mintzatu da Lurdes ere, urte askoan pertsonal buruaren idazkari eta Pertsonal Saileko langile emakumezko bakarra izan zenak. "Tailerlean, josteko makina alorrean, emakume askok egiten zuten lan, baina zuzendaritzan denak ziren gizonak. Ez zen deialdirik egiten postu horietarako. Aukeratzen zituzten eta listo! Hori bai, aukeratutako guztiak gizonen izenak izan ziren beti. Lanpostuetarako deialdi publikoak egin izan balituzte, edo gu-

xienez azterketaren bat, ikusiko genituzke beharbada emakumeak ere halako karguetan, baina ez zen halakorik izaten. Ni han egon nintzen denboran behin bakarrik egin zuten deialdi publiko bat, Informatika Saileko arduradun posturako, eta aurkeztu ziren guztien artetik emakume bat aukeratu zuten: Ana Auzmendi segurarra. Emakume argia benetan”, zehaztu du.

Harremanetan, “eredu”

Egunerokoa, edozelan ere, “oso baloratuak” sentitu izan ziren beti gure protagonistak. “Adiskidetasun eta elkarrenganako errespetu handia zegoen”, esan du Nievesek. Bat datoz gainerako guztiak ere. Garbiñek eta Rosariok tailerrean jardun zuten, “gizonez inguratuta”. Ez ziren, hala ere, besteak baino gutxiago sentitu. “Sekula ere ez. Horrenbeste miresle izan nituen ez nuela astirik izan denei ezetza emateko. Parrandak ere egin nituen nik lankide gizonezkoekin. Txixarrora [dantzalekura] ere ailegatu ginen zabaldu berritan”, dio Garbiñek umorez, eta bat datorrela adierazi du buruarekin Rosariok, harizatzen eta piezak egiten tailerrean lagun izan zuenak; “giro ezinhobea” zutela.

“Honek gure aldean erreginen pare bizi ziren. Jarrita egiten zuten lan, eta guk beti tente”, dio Garbiñek solaskideei keinu egi-

Herrian alargun gelditutako andre askori eman zieten lana Estarta y Ecenarron

nez. Eskuak erakutsi dizkio kazetariari, esku zailduak, eta baimena eskatuta hiru egunerako Tolosako inauterietara joan zen garaiko kontua ekarri du gogora. “17-18 urte izango nituen eta osaba-izebengana joateko baimena eskatu nion Alberto Ezenarori. Frontoian dantzaldia izaten zen han, eta joan nintzen eta arrimatu zitzaidan Beasaingo mutil gazte bat. Heldu zidan eskutik dantzarako eta harrituta esan zidan: zer esku dira hauek neska gazte batentzat? Zer uste zuen ba hark! Guk gizonen pare egiten genuen lan tailerrean, dena eskuz”. Tailerretik bulego teknikora pasatu zen gero Garbiñe, eta hogeita hamar bat urte egin zituen han delineaizten.

Enpresa “gizatiarra”

14 urterekin hasi zen Garbiñe Estarta y Ecenarron lanean, eskolatik irten berritan. Aitak Sigman lan egiten zuen, eta udan esko-

la amaitu ondorenean, urrian, lanerako deitu zuten. “Zatiketak eta biderketak egiten baino ez nekien eskola laga nuenean, eta aitaren ondoan hasi nintzen tailerrean, josteko makinenzako piezak egiten”, dio. Ume hasi zen lanean, baina gaur adin horretako askok duten baino heldutasun handiagoarekin, bere esanetan: “Beste garai batzuk ziren. Orduan azkar nagusitzen ginen. Orduan ez geneukan ezer, eta lanean hasi beharra geneukan, jango bagenu”. Ordurako, emakume askok lan egiten zuten, hala ere, Estartan. “Hango langileen ondorengoak bertan hasten ziren lanean, eta herrian alargun edo egoera zailean gelditzen ziren asko ere bai. Hori zeukan ona enpresa hark”, aitortu du Maria Mercedesek. Kanpora ere ateratzen zuten lana, etxeetara eta komentura ere bai. 1973tik 1990eko hamarkadara arte, Sigma plus makinaren pedalak Elgoibarko Santa Klara komentuko mojek egiten zituzten, esaterako. Egunero, Sigmako enplegatuek piezak eramaten zizkieten, eta sei edo zazpi moja klaratar pieza haiek muntatzeaz arduratzen ziren. Egun bakarrean 380 pedal ere egin izan zituzten.

Elgoibarko “bandera-ontzia”

“Oso enpresa gizatiarra zen, eta oso modernoa ere bai garai hartarako”, zehaztu

Jesusa Vicuña, Consolacion Alaiagoikoa eta Lourdes Garai ahizpak pedalen piezak egiten.



du Maria Mercedesek aldamenetik. “Medikuanera joateko edo beste edozertarako baimenak lortzeko sekula ez genuen arazorik izan”, esan du Garbiñek. “Umea eduki berritan ni tarteka irtetzen nintzen bularra ematera eta inoiz ez nuen arazorik izan horregatik”, aitortu du Gloriak. Lurdesekek dio, baina, bazela alderik tailerrean lan egiten zutenen eta bulegoko lanean zebiltzanen artean. Haren esanetan, tailerreko langileek, lan esku zuzenekoek, legez ezarritako ordu kopuru jakin bat zuten halakoetarako urtean, eta bulegoetakoek, nahi beste. “Ezberdintasun hori bazegoen, baina hein batean normala ere bada, tailerrekoak askoz gehiago zirelako eta destajuan edo katean lan egiten zutenez, zaindu egin behar zirelako halako gauzak”. Baimena eskatzen zuena gizona edo emakumea izan, ez zen bereizketarik egiten hala ere, eta tailerrekoak ere sekula ez ziren gelditu baimen orduak hartu ezinda.

Estarta y Ecenarroko lagun giroa nabarmendu dute guztiak. “Han besteko girorik ez dut nik beste inon topatu eta hori ezagutu ditudala beste leku batzuk ere”, gehitu du Nievesek segidan. Eta bistan da harreman berezia zutela, lankide izandakoen urtebetetze-egunak ere ondo gogoan dauzkatelako oraindik ere. “Errespetu handia genion elkarri eta oso geure sentitzen genuen enpresa”. Hain sentitzen zuten euren, bukaeran sekula baino negar gehiago egin zutela aitortu dutela elkarriketatuetako batzuk. “Gaur da eguna ibai ondotik pasatzen naizenean beti begiratzen dudala hara. Oso oroitzapen gordetzen ditut-eta”, esan du Garbiñek.

Estarta y Ecenarrok “handia” egin zuen Elgoibarren, eta behar handian zeuden askori lagundu zien. Hala aitortu dute guztiak. Enpresak bazuen bere eskola propioa eta ematen zituzten Lanbide Heziketako eskolak, baina gizonentzat bakarrik. Ohiko ikasketak bukatu eta mutil gazte asko joaten zen Nikasio Andonegiren eskolara Sigmara eta handik irtendako guztiak bulego teknikoetan topatzen zuten gero lana. Estarta y Ecenarrok bazituen, era berean, sukalde eta jangela handi bat, zeinean langileek etxean bertan baino merkeago jaten zuten, eta bazuen, jakina, ekonomatoka ere, San Bartolome kalean —ekonomatoko langile guztiak emakumezkoak ziren, nagusia izan ezik—. “Primerako jeneroa izaten genuen

Lan bera egiteagatik gizonen baino gutxiago irabazten zuten andrek

han, merke oso. Hura zen pagotxa”, dio Lurdesekek.

“Detalle on asko” ere bazituen enpresak langileekin. Ikatzka erosteko aukera ere bazuten langileek Estartan, kanpoan baino merkeago. Astelehenero egiten zuten eskaera Lurdeseen sailekoek eta Hernanitik ekartzen zuten ikatzka. Gabonetako otarra, berriz, Espainiako sukurtsal guztietako langileek jasotzen zuten eta adin batetik aurrerakoei bazkaltzen ere ematen zieten urte bukaeran. “Sekulako bazkaria izaten zen”, esan du Maria Mercedesek. Horren harira, Nievesek gogoratu du urtean hiruna pezeta ere ematen zietela erretiroa hartutako bakoitzari aparteko zorroan, eta urte onak izan zirenetan irabaziak ere banatu zituztela langileen artean, 1971. urtean kasu.

Soldatetan, baina, berdintasunik ez

“Emakumearen lana balioesteko beharra badago gaur oraindik ere, baina gu geu pribilegiatu batzuk izan ginen. Ni neu sekula ez nintzen bigarren mailako sentitu emakume izateagatik. Errespetu handiz tratatzen gintuzten denek”, esan du Gloria Canalesek. Tratuan bai, baina hala ere, soldatan bazen desberdintasunik. “Lan berdina egiteagatik gutxiago kobratzen genuen guk”, asaldatu da Rosario. “Diru gutxiago jasotzen zuten, eta ziurrenik gizon askok baino gehiago eginda, destajuko lanean aritzen zirelako hauek!”, bota du Maria Mercedesek. Destajuan aritzen ziren tailerrean Garbiñe eta Rosario, eta jakina, honenbestean lan egiten zutenez, denborarik laburrenean ahalik eta gehien produzitzea komeni zitzaien.

Sistema bera zen orduan ere matxista eta zer esanik ez Francoren agintaldian. Lurdesekek ez beste guztiak tailerrean ezagutu zuten garai hura, Primo de Riverak emakumearen tokia etxean zegoela aldarrikatzen zuen garaia. Lanean euren berdina-jarraitu zutela adierazi dute, baina nabarmendu dute emakume askok lagatzen ziola lanari behin

ezkondu ostean. Ezkontzeagatik lana lagatzen zuten emakume haiek diru bat jasotzen zuten ordainetan, hamazazpi lan eguni zego-kiona. Emakume haietako batzuen fitxak lehenengoz esku artera iritsi zitzaizkionean txundituta gelditu zela aitortu du Lurdesekek. “Baja guztietan zehazten zen baja hartzeko emandako arrazoia, eta haienetan ezkontza irakurtzen nuenean ‘nola liteke, baina hori arrazoi bat izateal’ esaten nion neure buruari. Grazia ere egiten zidan”. Baja kontuez ari dela gogoratu du behin edo behin entzun izan ziola kargu handiko gizonen bati absentismoa handiagoa izaten zela emakumeetan, baina ukatu du hori hala zenik: “Ama izaten ziren emakumeek ari ziren, baina hori gezurra zen eta da gaur ere. Orduan ere gehienez hiru ume izango zituen emakumeak eta zer da ba hori langile-denboran? Ezer ez. Are gehiago, jokoa egingo nuke gizonen baja gehiago hartzen zituzten orduan ere. Emakumeak hartzen zuenean, gainera, benetan behar zuelako izaten zen; gehiago ezin zuelako. Izango zen salbuespenen bat, baina hori horrela zen, eta halaxe erantzun nion nik arduradun hari ere”.

Lanordukak berdina izan, izan langilea emakumea edo gizona. Elgoibartik gertu, Eibarko Alfa kooperatiban, gizonak baino aurrerik irten izan ziren emakumeak eguerditan, etxera joan eta senararentzako eta seme-alabentzako bazkaria gertu izateko, Baina Estartan ez zen halakorik. Sirena hotsarekin batera hartzen zuten guztiak etxerako bidea. “Lan guztiak eginda joaten ginen gu tailerre-ra. Izan ere, tailerrean gizonen pare lan egin arren, beste ardua asko geure gain jausten ziren orduan ere: etxeko lanak, seme-alaben zaintza...”, adierazi du Maria Mercedesek.

Emakumearen indarra

1973. urtean hasi zen Estarta y Ecenarrok lanean Lurdesek, artean gerente Angel Berazadi zela [1976an hil zuten komando autonomoek]. Laguntzaile gisa sartu zen, eta laster egin zuen gora, azkene-rako pertsonal buruaren lana egiteraino. “Lurdesekek, bai, balio zuela. Bere izena ez da inon agertuko beharbada, baina Estarta y Ecenarrok lan egin genuenok asko zor diogu berari”, dio Nievesek. Eta bat datoz gainerako guztiak. Pertsonal buruaren idazkari izan zen Lurdesek, baina hark laga zionean eta sail berean nominen arduradun zenak erretiroa



Miren Garate Sigma A modeloko josteko makinaren funtzionamendua erakusten, gobernadore zibilak, gobernadore militarrek eta Elgoibarko alkateak Estarta y Ecenarro bisitatu zuten egunean

hartu zuenean, Lurdesek hartu zuen sail osoaren ardura, eta enpresa ixtear zela "irteera duin bat" eskaini zien langile askori, ordurako langabezi-sari osoa janda zutenei langabezia kobratu ahal izateko bidea eginez. "Lurdesek merezi du aitortza bat. Zer ez zuen hark egin gu guztionatik!", esan du Garbiñek, onuradun izan zenetako batek. "Ezin hobeto egin zuen bere lana, eta izugarri lagundu zion jende askori. Maila handiko gestioak egin zituen, baina ez zuen sekula jefe batek batek beste kobratu", gehitu du Nievesek.

Estarta y Ecenarro 1995ean itxi zuten eta urte hartako maiatzean kanporatu zituzten langilerik gehienak. Lurdesi uztailaren 31n eman zioten baja, baina irailen lanerako deitu zuten berriro, Fogasako (Soldatak Bermatzeko Espainiako Funtsa) kontuak lotzeko. Gerentearen idazkari Maite Vitores eta biak gelditu ziren ia azkenera arte, abendura arte. "Nire bizitzako urterik txarrenak izan ziren", dio Lurdesek. Haren esanetan, Angel Berazadi hil zuten egunean hasi zen enpresaren gainbehera. Azkeneko urteetan lana asko gutxitu zen josteko-makina alorrean eta gestioa ere "halamoduzkoa" izan zen. Lanorduetan murrizketak izan zituzten eta batzuei langabezia saria ere agortu zitzaizkien. Egoera horretan, Espainiako Soldatak Bermatzeko Funtsak abokatu bat jartzeari aholkatu zien egoera hura zuzentzeko, baina abokatu hark langileek kalte-ordainetan jaso behar zuten diruaren %10a eska-

tzen zion langile bakoitzari paperak zuzentzeko. Ez zitzaion bidezkoa iruditu Lurdesi berak egin zezakeen gauza bategatik abokatuari horrenbeste diru ordaindu behar izatea eta batzarrean tententu eta bere burua aurkeztu zuen lan hori betetzeko. Eta horretan jardun zuen 95eko abendura arte. Ordurako jabetua zen gaineratik zituenak agintzen onak zituela, baina ezagutzen ez zirela bera baino gehiago, baina "oso gustuko" zuen lana eta ondoan izan zituenei zer eskertua ere bazuela sentitzen zuten, "ikaragarri" ikasi zuelako haien ondoan.

Komunikazioa, marketina

Halakoxea zen emakumeen lana. Handia, baina gizonenaren aldean oihartzun txikiagokoa; "atetik barrurakoa". Halaxe aitortu du Pedro Mari Andonegi Elgoibarko historialezaleak ere. Orduko enpresa-buruen ondoan sarri emakume bat izaten zela nabarmendu du. Itzulpen lanak, komunikazio lanak... emakumearen gain jausten zirela sarri, emakumea prestatuago zegoelako hizkuntzetarako. Hala, emakumeak ziren Estarta y Ecenarroko arduradunen konfiantzazko idazkariak ere. Juana Gallarza bera izan zen Angel Berazadiren idazkaria, eta berak nabarmendu nahi oro saihestu nahi badu ere, lagunek egin nahi izan diote "merezi duen aitortza". "Idazkari ezinhobea zen Juana", esan du Lurdesek, esaterako. "Juana, Maria Mercedes... oso emakume bu-

ruargiak ziren, asko balio zutenak. Haiak eta beste emakume batzuek egindako lanarekin joaten ziren gizonak gero bileretara. Hori halaxe zen".

Gauza jakina da enpresa lehiakorra izango bada eta kanpora salduko badu, ezinbestekoa dela komunikazioan abila izatea eta emakumea "prestatuago" zegoen horretarako. Estarta y Ecenarrok emakumezkoa zen interpretatea: Elena Iriarte eibartarra. Eta emakumeak ziren, era berean, komunikazio gaietarako aukeratutakoetako asko ere. Karmen Ferrerren izena aipatu dute elkarrizketatuek, baina ez zen enpresa kanpora zabaltzen lagundu zuen emakume bakarra izan. Gloria Canales bera ere Esporazio Sailean aritu zen, hizkuntzak menperatzen zituelako, eta Carmen Dausovert, Berazadiren ordezkari izendatu zuten Pedro Atristainen idazkariak ere egiteko garrantzitsua bete zuen, hizkuntza ezberdinen jakitun zelako. Eguneroko lan isilarekin lagundu zuten Estarta y Ecenarro Elgoibarko industriaren bandera-ontzia izan zedin, baina gaur oraindik erreparoa diote euren izenak emateari, jakin arren emakumearen lana bistartzeko ezinbestekoa dela foku azpian jartzeari. Elena Alonso Elgoibarko Udaleko Berdintasun Saileko teknikariak badauki zerbait horri buruz. "Gertatzen den kontua da, baina. Emakumeen konplexutzat ere hartu izan da. Izena ere baduela esango nuke".



ESKERTZA

MANUEL LAZKANO AIZPURUA

2014ko irailaren 2an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunera agertu izana.



ESKERTZA

INES UCIN ARIZMENDI

2014ko irailaren 9an hil zen, 87 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunera agertu izana.



I. URTEURRENA

IÑAXI ZULAIKA ARRIOLA

2013ko abuztuaren 27an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, igandean, irailak 14,
eguerdiko 12:00etan, Mendaroko Azpilgoetako parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



ESKERTZA

MARIA TOBAJAS MONREAL

2014ko irailaren 6an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunera agertu izana.



*Familiakook zuen falta igartzen dugu,
beti gure bihotzetan.*



**JUANITO
IGARTUA ALONSO**
2012-08-22




**ROMAN
IGARTUA ALONSO**
2013-08-11



**PACO
IGARTUA ALONSO**
2013-08-16

Mendaroarrak nagusi Arriaga auzoko San Antolin jaietan

Egitarau oparoa antolatu zuen San Antolingo jai batzordeak aurtengo jaietarako eta igarri zen erantzunean ere, bereziki zapatuan. Desafioa iragarri zuten zapaturako eta jendetza batu zen auzoan, izena emandako bost taldeek egiten zutena ikustera. Nor baino nor aritu ziren partehartzaile guztiak, eta azkenean, Mendaroko taldea nagusitu zen. Desafiokoa ez zen izan, baina, Mendarora joan zen sari bakarra. Barixakuan, txapel-jaurtiketa eta oliba-hezur jaurtiketa egin zuten, eta bietan Aitzol Urain mendaroarra nabarmendu zen. Emakumezkoen artean Josune Fernandez gailendu zen txapel jaurtiketan. Hona hemen San Antolin jaiak eman zutenaren laburpen bat, argazkitan. Argazki gehiago eta bideoak www.elgoibarren.net.



ELKARTASUN OPORRAK



Ibilbide guztia amaitu zutenean ateratako taldeko argazkia.

Iazko urriaren 19an galdu zen Hodei Egiluz Galdakaoko gaztea Anberesen (Belgika), eta ordutik, hainbat eta hainbat ekimen egin ditu Hodei Bila elkarteak. Alberto Agirreazaldegi elgoibartarrak ere zerbait egiteko beharra sentitu zuen, eta bizikleta martxa bat egitea bururatu zitzaion Hodeiren kasua ezagutzera emateko. Belgikan eta Herbehereetan zehar 600 bat kilometro egin dituzte.

Ainhoa Andonegi

Hodei Egiluz 24 urteko galdakaoztarra Erasmus beka batekin joan zen Anberesera. Informatika ikasketak egin zuten, eta hango enpresa batean hasi zen lanean, baina iazko urriaren 19az geroztik ez dago haren berri. Atxilotuak egon diren arren, ez dute oraindik Hodei aurkitu, eta bai Euskal Herrian eta baita Belgikan ere hainbat ekimen antolatu dituzte, Poliziak kasua itxi ez dezan.

Hodeiren kasua urrun, baina aldi berean gertu sentitzen zuen Alberto Agirreazaldegik, eta sarritan jartzen zen Galdakaoko gaztearen gurasoen lekuan. Ezinegon horretan, zerbait egin beharra sentitu zuen. Etxeko edo herriko gazte batengatik egingo lukeen bezala, Galdakaoko familia horri laguntzea bururatu zitzaion: Belgika eta Herbehereetan zehar bizikleta martxa bat antolatzea erabaki zuen. Hodeiren aldeko ekitaldi bat egin zuten Galdakaon uztaila hasieran, eta hara joan zen Alberto. Mila lagunetik gora batu ziren, denak Hodei bilatzeko ahaleginean bat eginda. Albertori esan diotenaren arabera, Hodeiren desagertzak elkartasun sentimendua piztu du Galdakaon, eta lehen banatuta zeuden herritar asko ere, orain batu egin dira. Albertok ez zuen zalantzarik egin: Hodei Bila elkarteko kideekin harremanetan jarri zen bizikle-

ta martxaren kontua azaltzeko, eta begi onez ikusi zuten egitasmoa. Ez zuten Polizia lanik egingo, baina kasua ezagutzera eman eta gaztea bilatzeko arrastoak bilatzeko ahalegina egingo zuten.

Hamabost bat laguneko taldea abiatu zen abuztuaren 15ean Galdakaotik Belgikara, eta horien artean, Alberto Agirreazaldegi eta Pake Gartzia senar-emazte elgoibartarrak. Furgonetaz egin zuten bidaia, eta hilaren 17an ekin zioten bizikleta martxari. Bizikletaz bidaiatzeak bere zailtasunak ere badituenez, txirindulariek laguntza-furgoneta bat izan zuten etapa guztietan. Pake eta beste lagun bat arduratzen ziren txirindularien jantziak, erremintak eta jatekoa eramateaz. Pakeren asmoa bizikletaz ibiltzea zen, baina sendagilearen gomendioak jarraituz, furgonetaz bidaiatzea erabaki zuen, eta "eskerrak". Albertoren iritziz laguntza-furgoneta hori oso garrantzitsua izan da. Nolabait esateko, taldeko kide bakoitzak bere ardura zeukan, eta Albertori komunikabideekin hitz egitea egokitu zitzaion. Harrituta geratu da bizikleta martxak izan duen oihartzunarekin. Egunero deitzen zioten komunikabideek, bai nazionalak eta baita nazioartekoek ere, eta Belgikako telebista eta prentsan ere tarte handia eskaini diote egitasmoari. Taldeko kide batek deitzen zien komunikabideei etaparen berri emateko, eta horri esker, etapa bakoi-

tzaren amaieran kazetariak zain izaten zituzten. Prentsaurrekoa eman, Hodeiren irudia zabaltzeko kartelak jarri eta eskuorriak banatzen zizkieten herritarrei. Alde horretatik pozik itzuli dira, eta uste dute Hodei Egiluzen kasua hobeto ezagutzen dutela orain Belgikan eta Herbehereetan.

Abuztuaren 20a, berezia

600 bat kilometro egin dituzte guztira, zazpi etapatan. Anberesetik Bredara (Herbehereak) joan ziren lehen etapari, eta Hagara iritsi ziren bigarren etapari, Herbehereetako hiriburura. Belgikako enbaxadarekin egin zuten harrera han, eta euren zereginean jarraitzeko animoak eman zizkieten. Hirugarren etapari, berriz Anberesera itzuli ziren, kultur ekitaldi berezi batean parte hartu behar zutelako. Anberesko ibaiaren ertzean jarrita dagoen anfiteatro batean bildu ziren ehun bat lagun. Hango jendea leku horretara joan ohi da eguzkia ibaiaren beste aldean nola ezkututzen den ikustera, eta toki "berezia" da bertakoentzat. Abuztuaren 20an dena ondo irten zitzaion: eguraldi bikaina, jendearen begirunea, harrera beroa... Imanol Mitxelena flandiar-euskaldunak hiru kantu abestu zituen gitarrak eta pianoz lagunduta. Xabier Leteren *Xalbadorren heriotzean* abestia ere abestu zuen, "sentimenduz beterik". Ondoren, Anberesko poeta ezagun bat taularatu zen, propio Hodeirentzat egina duen poesia bat errezitatuz. Ekitaldi "xumea, baina benetan hunkigarria" izan zen, eta ez dute berehalakoan ahaztuko.

Gantera eta Bruselara egin zituzten azken bi etapak, eta abuztuaren 23an hartu zuten etxerako bidea. Jende askok egin dio galdera bera Albertori, eta askotan erantzun behar izan du: 'Zertara zoaz zu hara? Mutil hori hilda egongo da, ezta?' Baina hori inork ez dakit, eta Albertok argi dauka bere semea edo bere ezagun bat izango balitz galdutakoa ez lukeela pentsatuko hilda dagoenik: "Mendian hildakoen bilaren gorpuen bila edota gerra denboran hildakoen bila joaten bagara, nola ez gara joango bizirik egon daitekeen gazte baten bila?". Hodei Egiluzen gurasoek ez dute inondik ere pentsatzen Hodei hilda dagoenik. Zerbait gertatu zaio, desagertuta dago, baina ez dute semea onik aurkituko duten itxaropena galdu.

Denbora kontra dute; hori badaki Albertok. Las-ter beteko da urtea Hodei desagertu zenetik, eta indarrak tinko mantetzea gero eta zailagoa da, baina Hodei Bila elkarteak ahaleginduko da Hodeiren izpiritua bizirik mantentzen, eta Albertok berak harremanetan jarraituko du bai elkarteko kideekin eta baita Hodeiren senideekin, jendea guzti honekin ahaztu ez dadin. Itxaropena gaitzen den azkena delako.



Pake Gartzia ezkerrean, Hodeiren irudia duten eskuorriak zabaltzen.



Desagertuen monumentuaren aurrean egin zuten Hodeiren aldeko elkarretaratzea.



Hodeiren aldeko kultur ekitaldia egin zuten Anberesen.

San Bartolome jaietako “tolerantzia, poztasuna eta parte-hartzea” nabarmendu dituzte udal arduradunek

Hobetu beharreko gauzak badaudela aitortu arren, jaien balorazio positiboa egin du Udalak

San Bartolome jaien balorazio positiboa egin du Elgoibarko Udalak eta festetan izan den "giro ona, tolerantzia, poztasuna eta parte-hartzea" nabarmendu dituzte Amaia Txurruka Elgoibarko Udaleko Kultura zinegotziak, Blanca Salegi kultura teknikariak eta Javier Oñederra udaltzainburuak. Azken urteetako murrizketei amaiera eman eta aurrekontu handiagoa -171.000 euro- izan dute aurtengo San Bartolome jaiak, eta horri esker, ikuskizun hobeak ekarri ahal izan dituztela adierazi dute arduradunek. Gatibu talde bizkaitarrak eskaini zuen kontzertua jarri dute adibidetzat: "jaietako izarra izan da". Gazteen egunean Gose eta Belako taldeek Maalako parkean eskaini zituzten kontzertuek izandako harrerarekin ere gustura agertu dira. Era berean, Gazteen eguneko goiti-beheren jaitsierak "arrakasta itzela" izan zuela adierazi dute, bai publiko aldetik eta bai parte hartzaile kopuruaren aldetik ere, eta emakumeen parte-hartzea ere



beste urte batzuetan baino handiagoa izan dela nabarmendu dute. Hala ere, ikusleei segurtasun neurriak errespetatzeko eta errebueltetan ez jartzeko eskatu nahi diete.

Sokamuturrean ez dela aparteko gorabeherarik izan jakinarazi dute, baina, berriz gogora ekarri dute 16 urtetik beherakoek erabat debekatuta dutela ibilbidearen barruan ibiltzea.

Azkenik, Javier Oñederra Elgoibarko udaltzainburuak jakitera eman du iaz baino salaketa gutxiago jaso dituztela aurtengo jaietan Udaltzaingoan. Diru zorroak osteagatik bederatzi salaketa jaso dituzte, eta jendeak galdutako dozena bat objektu bildu dituzte. Horrez gain, bi lagun daude auzipetuta, bata lapurreta egotzita, eta autoritatearen aurkako atentatua eta irainengatik bestea.

Aitor Asenjo lehen postuan sailkatu da Zarauzko aurreku eta soinu zahar txapelketan



Zarautzen hasi zen joan zen asteburuan aurreku eta soinu zahar txapelketa, eta partaideen artean Elgoibarko Haritz Dantza taldeko bi dantzari izan ziren: Andrea Arregi nesketan, eta Aitor Asenjo mutiletan. Jon Lizarralde Haritz dantza taldeko irakaslearen esanetan, biak oso ondo aritu ziren. Aitor Asenjok lehen postua eskuratu zuen, eta Andrea Arregik zazpigarren egin zuen.

Azaroan Euskadiko Txapelketan hartuko dute parte.

Urriaren 17an bukatuko da 2015eko egutegirako argazki lehiaketan parte hartzeko epea

2015eko egutegia osatzeko argazki lehiaketa antolatu du aurten ere Elgoibarko Udaleko Euskara Sailak, eta interesatuek urriaren 17ra arte izango dute argazkiak aurkezteko aukera. Elgoibarko txoko bereziak izango da aurtengo gaia, eta horren barruan txoko ezagunak, ezkutukoak edo norbere gustukoak aurkeztu daitezke, baina betiere Elgoibarri erreferentzia egiten diotenak. Partaide bakoitzak sei argazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez. Udalak eta Ongarrik hamabi argazki aukeratuko dituzte egutegian jartzeko, eta 70 euroekin sarituko dute aukeratutako argazki bakoitza. Informazio gehiagorako Udaleko Euskara Sailera jo daiteke: 943 744 366.

‘Euskara Jendea’ ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak, gure hizkuntza eta herria ezagutzera emateko

Urriaren 8an hasiko da ikastaroa eta sei saio izango dira guztira

2008an hil zen Gotzon Garate idazle eta euskaltzale elgoibartarra, eta ordutik urtero antolatzen dute Elgoibarko Izarrak eta Udalak haren oroimenezko zikloa, eta aurten ere ekimen berezia prestatu dute urrirako: *Euskara Jendea* ikastaroa, hain zuzen ere. Xamar dibulgatzaile nafarra izan da dokumental-sorta sortu duenetako bat, eta bera izango da Elgoibarren ikastaroa emango duena. Saio bakoitzean dokumental-sortako kapitulu bat landuko dute: *historiaren atarian*, *Erromako inperioan*, *Aniztasunaren bidean*, *Mugetan gaindi*, *Gerren arteko pizkundean* eta *Mundua osatzen* izango dira saioen izenburuak.

Urriaren 8an hasiko da ikastaroa, eta sei saio iraupena izango du. Eguaztenetan izango dira emanaldiak, 18:30etik 20:00etara, eta 20 euroko prezioa izango du ikastaroak. Parte hartu nahi dutenek irailaren 30era arte dute izena emateko



aukera. Informazio gehiagorako Elgoibarko Izarrara deitu daiteke: 943 741 626 (Imanol).

Zinemaldietan saritutako bost film eskainiko ditu Ongarrik irailean

Donostiako Zinemaldiaren harira, hainbat zinemalditan saritutako bost film eskainiko ditu Ongarri zineklubak irailean. Datorren astean hasiko da zikloa, *Pelo malo* film venezolarrarekin. Eguenean 21:30ean izango da emanaldia, eta barixakuan, berriz, 22:15ean.

- *Pelo Malo* (Mariana Rodon. Venezuela). Film onenaren urrezko maskorra 2013an, Donostiako zinemaldian.
- *Las dos caras de enero* (Hossein Amiri, AEB). Gala berezia aurtengo Berlingo Zinemaldian.
- *Madre e hijo* (Calin Peter Metzger. Errumania) Film onenaren urrezko hartza 2013an, Berlingo Zinemaldian.
- *Hermosa juventud* (Jaime Rosales. Espainia) Made in Spain sailean 2014ko Donostiako zinemaldian.
- *El extraordinario viaje de T.S. Spivet* (Jean Pierre Jeunet. Frantzia) 2013ko itxierako filma Donostiako Zinemaldian.



lazko zinemaldian, Mariana Rondón “Pelo Malo” filmaren zuzendaria Donostiako urrezko maskorra jasotzen.

KZguneak hainbat ikastaro eskainiko ditu urrian

Elgoibarko KZguneak hainbat ikastaro antolatu ditu urrirako. Oinarrizko Internet ikastaroa, Google aplikazioak, administrazioarako ikastaroak, sare sozialak eta software librea erabiltzen irakatsiko dute, besteak beste. Goizez izango dira eskolak, 9:00etatik 13:00etara bitartean. Informazio gehiagorako tutor.elgoibar@kzguna.net helbidera idatzi daiteke edo 943 02 36 40 telefonora deitu.

Flipy-ren bakarrizketa irailaren 26an

Telebistako *El Hormiguero* saioko zientzialari bitxia izan zen Flipy, eta irailaren 26an Elgoibarrera etorriko da. Bakarrizketa saioa eskainiko du Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Sarrerak salgai daude dagoeneko Usua, Ibai-Ondo eta Lanbroa tabernetan.

Maite Maiorak irabazi du Nafarroako 800 Dukado proba, emakumeen lehen mendi maratoia

400 bat emakumek hartu zuten parte proban

Nafarroan jokatu zuten 800 Dukado izeneko proba, Sunbilla, Narbarte, Elorriaga eta Doneztebe artean. Estreinakoz egin da emakumezkoentzako bakarrik izan den mendi lasterketa bat, eta Maite Maiora mendarorak irabazi du, 3 ordu eta 52 minutuko denborarekin.

XVI. mendean Sunbillan eraiki zuten harrizko zubitik datorkio izena frogari, 800 dukado izan zen-eta Subizarreko Felipek, 1552an, Sunbillako lehen harrizko zubia eraikitzeke egin zuen eskaintza. Aurrez aipaturiko lau herrien artean ordaindu zuten egurrezko zubia ordezkatu zuen harrizko zubia. Nafarroako historian berebiziko interes estrategikoa izan du zubi honek, izan ere, Nafarroa Gipuzkoarekin eta Frantziarekin lotzen zituen Errege Bidean kokatua zegoen. Mendi lasterketa historiko honen bitartez, lau herri horiek elkartu eta zubiak eraiki nahi izan dituzte antolatzaileek, emakumezkoen kirolari bidea eta babesa emateko.



Lasterketa berezia eta historikoa izanik, jai giroan joan zela Sunbillara adierazi du Maite Maiorak, baina baita lehiatzera ere. Lasterketa historiko baten lehen edizioa irabazi duela idatzita ikusteak ilusioa egin diola aitortu du antxitxikari mendarorak.

Irukurutzetako erromeriara joateko bi mendi irteera antolatu ditu Morkaikok



Lau mila urteren ondoren, joan zen astean jarri zuten zutik Arribibiletako menhirra, eta haren bueltan erromeria egingo dute domekan, Irukurutzetan. Horren harira, bi ibilaldi prestatu ditu Morkaiko mendizale elkarteak, Irukurutzetara oinez joateko. Nagusiak 9:00etan batuko dira Kalegoen plazan, eta oinez egingo dute Irukurutzetarainoko bidea. Umeekin joateko, bestalde, Mintxetako apartakelkuan jarri dute hitzordua, 9:00etan. Handik autoz abiatuko dira Otxortiarra, eta handik oinez joango dira Irukurutzetara. 11:30ean hasiko da ekitaldia. Aranzadiko kideek Menhirrari buruzko azalpen labur bat emango dute, eta ondoren, aurrekua dantzatuko dute. Gero salda eta txorizoa banatuko dute. Ekitaldia amaitzen denean, Pol Poleko bidetik jaitsiko dira Otxortiarra.

Umeentzako futbito partidak antolatu ditu CD Elgoibarrek biharko

2003, 2004, 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilentzako futbito partidak antolatu ditu CD Elgoibarrek biharko. 2003an eta 2004an jaiotakoek jokatuko dute alde batetik, eta 2005ean eta 2006an jaiotakoek, bestetik. Taldeak klubak berak osatuko ditu, izena ematen duten neska-mutilen artean zozketa eginez. Izena emateko cde@cdelgoibar.com helbidera idatzi edo CD Elgoibarrek Mintxetan duen bulegora jo daiteke. Taldeak egin ahal izateko, atezain nortzuk jokatuko duten zehazteko eskatu dute antolatzaileek. Partidak 9:00etan hasiko dira. Txapelketari eta ordutegiari buruzko informazio gehiago www.cdelgoibar.com webgunean aurkituko duzue.

K-Stretch metodoa jarriko dute martxan kiroldegian

Kirol Patronatuak K-Stretch metodoa jarriko du martxan urrian. Metodo honek gorputza berronkatzen du, postura txarrak zuzenduz, eta tramautismoak eta muskuluen gainkargak arinduz. Jarduera honekin artikulazioen mugikortasuna, arnasketa eta zirkulazioa hobetzen dira, eta pertsona lasaitzen laguntzen du. Astean hiru saio eskainiko dituzte: Astearteetan 10:10ean, asteazkenetan 15:00etan eta barixakuetan 13:15ean. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko Olaizaga kiroldegira edo Mintxetara jo daiteke.

Garagardo feria antolatu du Sanlo eskubaloi taldeak, irailaren 18tik 21erako

Eguenean zabalduko dute karpa, 18:30ean

Sanlobeer jaia antolatu du Sanlok aurten ere, eta eguenean inauguratuko dute karpa, 18:30ean. Kirola eta jaia uztartuko dituzte. Besteak beste, Sanloko klubek aurkezpena egingo dute irailaren 20an, beteranoek lagunarteko partidak jokatuko dituzte, eta gaua alaitzeko Melissa and the Jacks taldearen emaldia izango da. Irailaren 21ean, aldiz, paella erraldoia prestatuko dute.

Horrez gain, irailaren 20an jokatuko den Gau Kroserako dortsalak karpan bertan jaso ahal izango dira, irailaren 19an.

Euskadiko Kopa

Sanloko talde gehienak aurrendenboraldiko lagunarteko partidak jokatzen dihardute, baina joan zen astean Alkorta senior mutilen taldeak Euskadiko Kopako partida jokatuz Usturibilen kontra, eta 28-22 irabazi zuten elgoibartarrek. Domeka honetan emakumezkoen txanda izango da. Lauko nesken taldeak Euskadiko Kopako partida jokatuko du Gasteizko taldearen kontra. 11:00etan jokatuko da partida, Olaizaga kiroldegian.



Mintxeta atletismo taldeak hasi ditu denboraldiko entrenamenduak



Mintxeta atletismo taldeko neska-mutiek hasi dute denboraldia, eta egin dituzte dagoeneko lehenengo korrikaldiak Mintxetan. Aurten ere zita garrantzitsuak dituzte Donostiako lasterketan edota Mugertza krossean, eta orain arteko emaitzei eutsi edo hobetzen ahaleginduko dira. Astelehen, eguazten eta barixakuetan entrenatzen dira Mintxetan, 19:00etan. Interesatuak bertan agertu daitezke.

22 bikotek eman dute izena pala txapelketa mistoan

Kirol Patronatuak eta Udaleko Berdintasun Sailak pala txapelketa mistoa antolatu dute, eta 22 bikotek eman dute izena. Hilaren 15ean hasiko da txapelketa, eta partidak astelehen, eguazten eta eguenetan jokatuko dira, 18:30etik aurrera, Kalegoen Plazan. Euria egiten duenean Ikastolan edo Aiastian jokatuko dira. Final laurdenak urriaren 13an jokatuko dira, finalaurrekoak 15ean eta finala urriaren 17an izango da.

Elgoibartarrak nagusi, Mutrikuko Hondarbeltz txapelketan

Abuztuaren 30ean jokatuz zituzten Hondarbeltz pilota txapelketako finalak, eta Elgoibarko pilotariak jantzi zuten txapela. Beteranoetan, 22-17 irabazi zion Berazak Itziarko Astigarragari, eta gazteen kategorian Iker eta Igor Txurruka anaiak jokatuz zuten finala. Ikerrek irabazi zuen, 22-14.



ETXEBIZITZAK

- Etxea salgai Eibarko erdialdean. Guztiz jantzi-ta eta bizitzera sartzeko moduan. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea, trastelekua, igogailua eta 5 horma-armairu ditu. Argitsua. 132m² erabilgarri. ☎ **626 203 838 / 699 495 249**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 523 426**
- Etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **697 737 046**
- Emakumeak bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. ☎ **602 490 595**

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Orduka edo interna. ☎ **642 609 678**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Geriatría laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**
- Emakumea lanerako prest. Adinekoak zaintzen, garbiketak egiten edo tabernan egingo nuke lan. ☎ **638 338 816**

- Emakumea eskaintzen da gauzez adinekoak zaintzeko. Esperientzia handia. Arduratsua. ☎ **682 255 834**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko, edo beste edozein lanetarako. ☎ **608 523 426**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ☎ **606 354 982**

ESKAINZA

- Emakume euskalduna behar da goizetan umeak zaindu eta ikastolara eramateko. ☎ **636 047 028**

IBILGAILUAK

- Renault Space autoa salgai. Egoera onean. ☎ **689 583 761**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garajea salgai Maalan, Eroski azpian. 16m², itxia. 22.000 euro. ☎ **675 007 661**
- Lokala alokairuan Erretxindin. 120m², bi komun, aparkatzeko erraztasunak. Gazteentzat edo biltegi moduan erabiltzeko egokia. ☎ **649 446 716 (Loli)**

PARTIKULARRAK

- Alemanierazko klaseak ematen dira. Metodo erraza eta atsegina. Ikasleen trukea eta E.O.I. azterketen prestaketa. ☎ **670 793 312**
- Lizentziatua eskaintzen da matematika, fisika, marrazketa... irakasteko. DBH, Batxilergo edo Heziketa Zikloetan. ☎ **699 495 278**
- Ingelesko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ **680 319 002**
- Neska euskaldunak hizkuntzen klase partikularrak ematen ditu, LHn eta DBHn. Atzeriko hizkuntzan diplomatura eta EGA tituluduna. Ingurumena edota matematika ere emango nituzke. ☎ **659 024 427**

OSPAKIZUNAK

- 1957an jaiotako elgoibartarrek bazkaria egingo dute irailaren 20an, Sigma jatetxean. 13:00etan batuko dira bolatokian, eta bazkaria 14:00etan izango da. 52 euro sartu behar dira Kutxako kontu honetan: 2095 5036 55 1074745950. Azken eguna: irailak 17. ☎ **619 127 474 (Maria Jesus Galarraga)**

Euskaraz blai
Empápate de Euskera

14-15 IKASTURTEA
Matrikula zabalik
Ikastaroak

- Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.
- Autoikaskuntza internet bidez
- Ikastaro bereziak (enpresak, AISA, merkataria eta ostalaritza)
- Perfilak (Administrazioa, Osakidetzak, Hezkuntza, ...)
- HABEren 1., 2., 3. eta 4. mailak
- EGA
- 16 urtetik gorakoentzat
- Matrikulaldia: irailaren 26ra arte
- Langabetu, ikasle eta gurasoek, **MATRIKULA ERDIA** eta bekak
- Informa zaitez Udal Euskalteglan!

UDAL EUSKALTEGLIAK
euskaraz klaseak • clases de euskera

14-15 IKASTURTEACURSO
matrikula zabalik
matrikula abierta

ELGOIBAR: 09:00 – 13:00 / 15:30 – 19:30
DEBABA UDAL EUSKALTEGLIA
Kalebarren plaza, 2
943 74 27 31



• Zorionak, **Nora**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Familiako guztion partez.



• Zorionak, **Maddalen!** 10 urte! Muxu potolo bat, maite zaitugun guztion partez.



• Zorionak, **Ihart**, hilaren 9an 5 urte bete zenituelako. Familia osoaren partez, bereziki Julenen partez.



• Zorionak eta urte askotarako! Familia osoaren partez, eta bereziki, Javierren partez.



• Zorionak, **Norabko!** Ilgandean 2 urte egingo dituzu, eta denok elkarrekin ospatuko dugu San Pedron. Patxo potolo bat. Etxekoek.



• Zorionak, **Unai**, etxeko txapelduna! Zelan hazi zaren! Dagoeneko 6 urte! Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Julen**, asteartean 7 urte bete zenituelako. Muxu handi bat.



• Zorionak, **June** maitia! Astelehenean zuren 6. urtebetetzea dator eta irrikaz gaude zuri zorionak abesteko. Patxo mordoa bat, bereziki, Malenen partez.



• Zorionak, **Janire**, 11 urte egin dituzulako. Etxekoek partez.



• Zorionak, **Ihintza**, atzo 10 urte bete zenituelako. Hamar muxu potolo etxeko guztien partez, eta Oinaten partez bere muxu berezi horietako bat.



• Bi egun gehiago eta... 3 urte! Zorionak, **Luken!** Ondo-ondo pasatuko dugu igandeko bazkarian. Muxu bat, familia osoaren partez.



• Zorionak, **Garazi**, asteartean 3 urtetxo beteko dituzulako. Muxu potolo bat, familiakoek partez.



• Zorionak, **Maialen eta Beñat!** Ondo pasatu bihar zuren urtebetetze egunean, eta muxu handi bana, denon partez.



• Zein ondo pasatu dugun uda! Gainera gure perretxikoak 7 urte bete ditu!



• Zorionak, **bikote**, 8 urte egin dituzuelako. Muxu handi bana, etxekoek partez.



• Zorionak, **Erik eta Sara**, zuen bosgarren eta bigarren urtebetetzean. Muxu bat, etxekoek partez.

Konfiantzan IKASTOLA
 HH 0 (2013an eta 2014an jaiotakoak)
 azarotik otsailera hasteko
 matrikula zabalik
 irailaren 15etik 26ra

elgoibar ikastola

Ikastola ezagutzeko aurkezpen bilera
 irailaren 15ean, 18:00etan

13 zapatua

Kirola

9:00 Futbito txapelketa
CD Elgoibarrek antolatuta,
umeentzako txapelketa. Aita
Agirre plazan.

14 domeka

Dolmenen ibilbidea

11:00 Erromeria
Irukurutzeta inguruan egingo
dute erromeria, Arribiribiletan
menhirraren inguruan.

15 astelehena

Aurkezpena

19:00 'Goazen Gudari
danok...'
Liburua aurkeztuko dute, Kultur
Etxean.

16 martitzena

Bilera

19:30 Otegiren aldeko
manifestazioa
Arnaldo askatu plataformak
deituta, bilera egingo dute
Kultur Etxean, urriaren 11ko
manifestazioa prestatzeko.

18 eguna

Sanlobeer

18:30 Inaugurazioa
Maalako karpa zabalduko dute.

Dokumentala

19:00 'Goazen Gudari
danok...'
Dokumentala aurkeztuko dute,
Herriko Antzokian.

BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
12 Zabaleta 13 Barrenetxea 14 Barrenetxea 15 Ibañez 16 Yudego 17 Etxeberria 18 Fernandez 19 Yudego	Astelehenetik igandera Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Zabaleta Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

ZINEA
(HERRIKO ANTZOKIAN)
ZINEMALDIAK 2014

«Pelo malo»
Ongarri zinekluba
18, eguna: 21:30
19, barixakua: 22:15

Zuzendaria: Mariana Rodón. Venezuela. 2013. 93 min. Drama. Aktoreak: Samuel Lange, Samantha Castillo, Nelly Ramos. Ite gaiztoa, kizkurra, duen 9 urteko mutikoa da Junior. Eskolako argazkirako ilea lisatu nahi du, abeslari famatuaren itxura hartzeko, eta horrek hasarrea eragingo dio amari. Alarguna da ama, eta langabezian dago. Egoerak gainezka egingo dio eta gero eta zailagoa egingo zaio semeak bere ilearekin duen arazoa ulertzea.

I. URTEURRENA



MARIA ISABEL GOMEZ VARGAS

2013ko irailaren 10ean hil zen, 38 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 13,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



II. URTEURRENA



JOSE MARIA ARAMBERRI URRUTIA

2012ko irailaren 13an hil zen, 66 urte zituela.
Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, irailak 13,
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.
Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.





II. URTEURRENA

CARMEN ORTUONDO AREITOURTENA

*Zu izan zara gure poza
gure indarra, gure bidea.
Edonon zaudela ere,
beti egongo zara gurekin.*



2012ko irailaren 10ean hil zen, 82 urte zituela. II.urteurreneko meza ostiralean, irailaren 12an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ESKERTZA

FAUSTINA ZUBIAURRE SAN MARTIN

*Andra garbosia zan
Metalkuakua
makiña bat urtian
lan egindakua
bizitzen jakin zaban
ze zoriontsua!
ama, amama Fausti
zu beti goguan*


2014ko irailaren 8an hil zen, 90 urte zituelarik. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

MARISOL UNANUE ARREGI

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda betezko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*



2014ko uztailaren 24an hil zen Mexikon,
73 urte zituela.

Elgoibarko sendia



BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin
info.gipuzkoa@gipuzkoa.net helbidean